

zeruko ARGIA

BANAKOLA: OKENDO, 22 - DONOSTIA - TEL. 426666 - PREZIOA 8 PEZETA

Iñaki Gorostiza

Bagenuen Iñaki Gorostiza agurtzeko gogo, bagenuen elkarriketa bat egiteko asmo-rik. Izan ere Iñaki gazteak harri eta zur utzi ditu pelotazaleak. Apal apal, baina bere nor-tasunaren neurria erakutsiaz azken mailaraino iritsi zaigu. Retegi menderatuko ote du Anoeta pelota lekuan?

Hauxe da, hain zuzen, pelota zaleek egiten duten galdera. Orain artekoak irabazi ditu, baina azken joko nagusi hori irabaziko ote du? Izan ere nork neurtu dezake Gorostiza Rete-gik baino hobeto?

Anoeta pelotalekuan Iñaki Gorostizarekin hitzegiteko egokiera izan dugu. Entrenatzera etorria delarik minutu batzuk pozik eskaini dizkigu euskal aldizkari honetan bere kezkek ager ditzagun.

—Iñaki, oraindik gogoan dugu Lajosén kontra egin zenuen parti-du hura. Inoiz ikusi ahal zenuen arriskuan partidu hura?

—Jokatu dodan partidurik zaille-netakoa, gogorrenetakoa izan zan hura. Hamargarren tantora arte nahiko hestu ibili nintzan, baina geroxeago partiduari buelta emon neuton eta handik aurrerako tan-toak lasaiago irabazi nebazan. Bai-na ez pentsa partidu hori erraza izan zenik. Lajosék ez dau azke-neraino etsitzen eta azkeneraino gogor jokatu beste erremediorik ez da izaten.

—Ze pelotaleku dituzu gogozkoe-nak? non jokatzen duzu gustoen?

—Bada bai alderik frontoi bate-tik bestetara: Batzuk latzagoak, besteak legunagoak. Batzutan pe-lota bizi bizi urteten dau, beste-tan, barriz, makal. Nik, neronek aukeratu behar banau Eibarkoa ai-patuko neuke. Frontoi latza da, eta pelotari gogor emon behar yako urrutira bidaliko bada. Eta parti-duak luzaro iraun ezkero horre-lako frontoitan neure burua seguru arkitzen dot.

Iñaki Gorostiza gazte lerdén, in-dartsu, sasoiak dugu. Hogeit urte baino ez ditu eta dagoneko pelotazaleen gose egarriak ondo baino hobeto asetzen ditu. Pelotaritzaren gailurrera iritsi zorian. Bera apal ikusten dugu, frontoian jasotako txaloez ez dute harropuztu.

—Gaurko maila honetara iriste-ko, inoren babes eta laguntza be-rezirik izan ahal duzu?

—Pelota jokoa beste zenbait ki-rol motarekin konparatzen bado-gu, desberdina dela konturatzen gara. Futboleak azkar eta bizkor datozenak goi mailako taldeek fi-txatzen dabez gatzetxoetan osa eta indar daitezten. Guk ez dogu ho-rrelakorik ezagutu. Bakoitzak ahal daben neurrian, baina bakarrik, jo-katu behar dau. Badira txapelke-tak eta ondo jokatu ezker, ibilian-ibilian zerbait izatera iristen da-be. Lagun onak eta zintzoak arki-tu dodaz, baina ez gauza ondo an-tolaturik dagoelako.

—Ea Iñaki, kritikak ondo hartu ahal zaitu? Kritikariak partidutara azaltzen ahal dira?

—Pelotan hasi naizenetik ondo hartu nabe, ez dot ezereen kezarik. Partiduak ikusten dabezan ala ez beraiei itandu. Denetik izango dela

nik uste. Ni, egia esan, kontentu nago.

—Nola ikusten duzu Bizkai alde-ko pelotaritzaren etorkizuna?

—Bizkaian, gauzak aldatzen ez badira, ez dau pelotari on askorik urtengo. Ez dago giro gehiegirik eta landu beharrezko lurraldea da fruturik emotekotan. Oraingo Nafarroan ikusten dot pelotaritzaren geroa, etorkizuna.

—Gatozen beste gai batekin parti-du nagusi honetara. Lasai ahal zaude Retegiren kontrako partidua gogoan izanik?

—Ni neure nerbiosoa naz piskat, baina neure burua gertutzen dot eta irabiziko dodan itxaropenik ez dot galtzen.

—Nola entrenatzen zara? Senda-gile edo medikuaren esanik go-goan hartzen ahal duzu?

—Nere gisa entrenatzen naz. Ha-mabostero jokatzen dot azken aldi honetan. Hiru bat entrenamentu baino ez dodaz egiten, eta hoiak arinak. Izerdi puskat atara, sake-ekin prueba batzuk egin, eta abar. Entrenamenturik ez badot, orduan zortzi bat kilometroko ibilaldia egi-ten dot egunero.

—Lajos edo Retegi, zein aukera-tuko zenduke kontra jokatzeke?

—Biak pelotari onak dira. Rete-gi ritmo haundiko pelotaria da, bizi bizi jokatzen dabena. Ez dau pelotak tanto egin barik luzaroan iraungo. Bolea, bi paretak, dejada edo errebotea, tantoa lortu bitarte-ko onik ez dau izaten. Lajos pa-txada haundiagoko pelotaria da eta alderdi horretatik nahiago dot Lajos Retegi baino.

—Retegiren aurrean bildurti sa-mar beraz?

—Ez dautsot nik ezereen bildu-rrik, errespetoa sartzen daben pe-lotaria bada ere. Partidu gogorra izango da. Besteak hogeit eta bi tanto egiten ez dabezan bitartean ez dot partidua galdutzat jotzen. Eta beste horrenbeste gertatzen yako Retegiri.

—Retegiren boleaz, horregatik, go-goan hartzekoa izango duzu?

—Retegi pelotaria ezagutzen dot. Pelota nekez galtzen daben pelotaria da, boleaz ondo baliatzen de-na. Laugarren koadrotik aurrera boleaz pelotarik hartzen badau po-liko ibili horrekin, jo eta desegin-

da uzten zaitu. Retegiren barri da-kienak guzti horrena ere badaki.

—Zure ezkerre ere ahulagoa ote den entzun izan dautsot inori...

—Retegiren ezkerre, jakina, neu-rea baino hobea izango da. Baina ni ere ezkerrez defenditzen naz. Behin baino gehiagotan pelota emon beste erremediorik ez dot izango. Manomanistetan, bakarka jokatzen dogunean, askoz nabaria-go da hau, pelotaleku guztia nor berak bete behar dabelako. Baina neure kontrarioari beste horrenbes-te gertatuko yako, noski.

—Iñaki, Retegiren partidu hone-tarako taktika bereziren bat pre-s-tatu ahal duzu?

—Galdera honek ez du erantzun-ik izan. Irrifarrez isilik gelditu zaigu Iñaki Gorostiza. Guk entre-natzen ikusi dugu. Pelota indarrean erabiltzen du, berak jotako pe-lotak ez du frontisen gaina bilatzen. Erdi parean pelotak jotzen duela-rik gero indarrean irtetzen du pe-lotak. Bihurria benetan erantzun behar duenarentzat. Partidu hone-tan, bestalde, garrantzi haundia izango du sakeak, ateratzen eta bueltatzen jakiteak. Retegiren nor-tasuna ezagutzen dugu, Gorostiza berriz ez du nehorik behar bezala neurtu. Partiduaz luzatzen bada Iñaki gaztearen sasoiak lanak emango dizkio Retegiri.

—Azkenik, Iñaki, galdera bat egingo dizut gure irakurleentzat erantzun dezaiguzun. Aurten txape-la noruntz eramango ote duzue Bizkaira ala Naparrora?

—Partidua jokatu ondoren hobe-to erantzungo dautzut. Jokoa era-kutsiko dau. Nere aldetik al do-dana egingo dot. Gogoz eta ilusi-ñoiz prestatzen saiatu naz. Hortik aurrera geroak esango dau.

—Eta txapela?

—Ea ba Bizkaira eroaten dogun. Bizkaira, eta hobeto esanda, Axpe-ra, Atxondora, Anbotope hartara eroan nahi neuke. Esperantzarik ez dot galtzen.

—oOo—

Esperantza eta itxaropena beha-rrizkoak dira jokoa irabazteko. Hor-tik aurrera hobekien jokatzen due-nak irabaz dezala.

ERRIALDE

Irakurleak

Mintzo

Giroa euskaldundu behar omen dugu. Bere burua euskalduntzat jotzen duen edonork esango dizu hori. Baina giro hori euskalduntzekotan, guk, geuk, euskaldunok, egin beharko.

Gaur (9.4.74) Donostiara nentorrela hiru emakume igo dira autobusera. Euskaldunak hirurak. Beren umeak euskal Lizeo batera bidaltzen dituztenak. Umeen azterketak eta oporrak eta ikastolako hainbat eta hainbat gora-behera zerabiltkiten beren elkarriketan. Baina dena gaztelaniaz. Eta euskeraz ondoko zekiten hirurek. Euskaldunak hortan jardun gabe ere, izango da Oñorga alde hori erdaldunduko duenik bat baino gehiago.

Jardunak du pixua. Hitzak beti hitz.

L. O.
(Andoain)

bergara

AURTENGO EUSKAL IKAS-
PIDEEN AMAIERA

Joan dan illean bukatuarren ikastaro aukerak, larunbatean, ofizialki illaren 6an bukaera eman genion; au dala ta, ARITZNOA jatetxean ondo gertatutako maai baten inguruan elkartu ginen ikasle eta irakasleak. Umore ona, alaitasuna eta anaitasun berezian igaro genituan ordu eder batzuk eta ikasle eta irakasleei dagozkien batzordeak, omenaldi bat egitea erabaki zuan Juaristi eta Gallastegitar Erromani, bere etengabeko lanagaitik euskeran alde.

Bere eguneko lanak uzten dituan, nean au degu Juaristi jauna deitzen dioten lekuan, berdin neguan edo udan, beti prest euskera irakasteko; gaur, gutxiak eramango diote Juaristi jaunari euskal aditza ulertzen eta erabiltzen gure erri ontan; bere ikasleek onela eskaturik, erabaki au artu zan.

Geu, bere lagunak izanik, pozten gaitu albiste onek eta biotz biotzez gure zorionik berezienak agertzen dizkiogu. Zorionak, tokaio.

EUSKAL HISTORIA SAIOAK

Joan dan ostiralean Gorka Knorrek «Acción Católica» aretoan, abesti saio bat eskeñi zigun; ekitaldi onekin Euskal Historia saioari bukaera eman diogu.

Soio aukerak denon gogozkoak izan ditugu.

Leenengoz, Federico Zabala jaunak lau eguneko itzaldiaz agertu zigun gure erriaren ezaupidea arri arotik gaur arte.

Bigarren, Manuel Lekuona jaun agurgarriak, karlisten arteko guda-ketak eta Euskal-Fueroak.

Euskera xamur eta benetan go-xoa; irabazi zituan entzule guziak agertu zigunean nolako eskubideak ematen zion gizonari legearen aurrean. Txalo ugari jo genion, ondo merezitakoak.

Irugarreuez, Iñaki Zumalde, Leenengo egunean Bergarako Historiari eldu zion eta bigarrenean, Altube, oñatiar artzaiaren bizitza Nevada-ko lurraldeetan.

Azkenez, Adrian Zelaia jauna, Deustuko Unibersitateko katedrati-koak. Gure Fueroak-Derecho Foral. Oar bat egin zuan itzaldia asi baiño leen, esanaz, bere euskera motz gelditzen zala euskeraz egiteko.

Itzaldi bikaina. Entzuerak bage-nuan au oso ona zala eta au esan zuanak ez zuten ez gezurrik esan, jende guzia liluratuta gelditu zan. Guk, gauza bat esango degu bakar bakarrik: arrigarria. Gure irakurleei aitzen ematen diogu ifoiz izen au ikusten dutenean itxui itxuan joa-teko oni aitzera.

Itzaldi auen aurkezpena Azurmen-ditar Jabieren gai joan zan.

Altuna jauna, CENTRALES ATO-MICAS EN EL PAIS VASCO gai au buru zala itz egiteko antolatuta zegoan baiñan etzan agertu. Egitan, bear bada bearrezkoak izango dira zentral duntsuok baiña gure erritik ain urrian oso grazi gutxi egiten digute. Pampin jauna, leen ere bade-gu Euskalerrian galtzoria geure azido, auts, kee eta zaratagaz. Zer motatako galtzoria oraingo onekin ekarri bear diguzu?

KALE KONPONKETAK

Joan dan igandean erriko Alka-tearekin alako itzalditxo labur bat egin genuan erri ontako iru berri emailleok. Beste gauza askoren artean esan zigun berealaxe asiko direla baiñan bariantea egiten ez dan bitartean gure kaleak ez dire-la kale.

FUTBOLARIK

Igandean izan genuan iskanbilla eta zarata errian zear. Leenengo Regional txapeldun atera zala eta «Aspertuarte» txarangak, alaitu zitu-baztar zaarrok musikaren aurkako tresna guziarekin; berandu bada ere, bijoazkie futbolarietara eta C.D. Vergarari gure zorionik gar-tsuenak.

MENDIKOI

beasain

GAZTEEN BILTZARRA

Aurten ere gure Jakintza Astea antolatzen ari gara.

Ekainaren 2an, Beasain herrian, Euskal Herriko soinu (instrumentu) guztien biltza, baita bikote dantzarien eta irrintzibarien txapelketa ere izango da. Txapelketa hau Euskal Herriko guztientzat izango da. Txapelketa honetan parte hartu nahi duten bikote eta irrintzibariak deitu edo idatzi dezatela:

Club de la Amistad-era
C. San Ignacio (Beasain)
Urrutizkiña: 891018
Izenak ematea maiatzaren 10 arte izango da.

Txapelketariak bete beharrekoak:
1) Goizeko 10etan Erauskingo Emparantzan elkartuko dira.

2) Txapelketa hau bi saiotan izango da: goizeko 11etan eta arratsaldeko 5etan; goizean geldituko diran 4 bikote eta 4 irrintzibari onenek azkeneko saioa emango dute.

lezo

LAPURRETAK

Lapurrek maiz xamar bisitatzen gaituzte azkenaldi hontan eta gaur batez ere. Batean txatarra lapurtzeko, portuko goarda uretara bota zutela, besteetan taberna eta denda batzutan sartu edo sartu nahi izan dutela... Ez dakit ba batzuk hestuegi bijilatzeagatik lapurrak lasaiegi geratu ez diren. Seguru aurrerantzean ere arreta haundiz bijilatuko dituztela, baina noizean behin gabardinaz eta betaurreko beltzez jantzita etortzen diren hoiek ez dut uste oso ongi ikusiko dituztenik, nun-ta kaleak gehiago argitzen ez dituzten.

SANTAKRUTZ TXIKI

Aurten ere, Santakrutz Txiki maiatzaren 3an izango da, festarik izaten ez bada ere. Azken urtetan zelebratu baino ahaztu gehiago egin ditugu urteko lehenengo festa hauek, egindakoak inolaz ere egokiak ez direlako. Santakrutz Txiki eta Bazkoak Santakrutzten alde gutxiagotzea egoki iruditzen zait, baina ez betirako ahaztutzea. Nere uste apalez, bi festa hauek kultur giroko eginkizunez bete behar dira: idatz-lehiaketak, hitzaldiak, musika-saioak, e.b. Presupuestoa haunditza izan daiteke, baina galduta-

ko» diru hori horrelako festa eskasetan gastatua baino probetxugarriagoa izango litzake.

SAN JUAN BIDEA

Lehenago esan nuen bezala (eta guzioak jakingo dugunez) eroria dago tarte batean, azkenaldiko euriak direla-ta. Lehen, bere tokian geratu zen bide puskatik autoak pasa zitezkeen, baina orain, lanak hasi direnez gero, kaia berritik pasa behar dute, bai autoek eta baita oinezkoek ere.

Lan hauek aguro bukatuko dituzten esperantza dugu, bestela auto-gidariak ez dute errueden zuloak adabatzeko haina irabaziko, txatar arrasto gehiegi bait dago sakabaturik.

Hau dea-ta, Jaizkibel eta San Juanera dijozen autoak Jauregi-detik zehar desbidatu dituzte, eta egia esan, gure aguazilak oso iaio ikusi ditugu bide-gurutzetan.


SARITUA

Erdal egunkariaren bidez jakin dugunez, Patri Urkizu lezoar idazleak «Premios Guipúzcoa» delakoen euskarazko saiakera sailean lehenengo saria irabazi du. «Xaribariak» izeneko lanarekin. Noiz ikusiko dugu salgai? Zorionak eta jarrai zuzen!

IKASTOLA

Ikastolako zuzendaritza oso lan-gile nabaritu dugu: zozketak, gurasoen inkesta, guraso taldearen sendotu nahia, hitzaldiak antolatzeko asmoak, irakasle bila, estatuko ber-ritzea, e.a. Eutsi, eutsi!

SISTIAGANEKO PELLOK



bazkari onaren zainpargarria
eta txarraren estalgarria

LA CASA
DEL CAFE
Juan Iriondo

San Marcial, 19 - Urrut. 413301
Donostia

IPAR
EUSKAL
HERRIA

BERRI SOIL SOILAK

● Martxoaren 24ean. «Piper Beltz» deritzan jaialdi mota berri bat aurkeztu zen Maulen.

Kanta, dantza eta «gorputz espresabidea» delakoaz baliatuz, erabateko saioa hogeita hamarren bat zuberotar gazteek moldatu duen hau, egungo Zuberoako kezka eta bizimoldeei atxikia.

● Erramu igande arratsalde bestea kanta jaialdi bat eratu zen Zuberoako Gotain deitu herrixkan.

Maurice Hoki gazte gartsuaren zuzendaritzapean bospasei kantarik parte hartu zuen, Ipar Euskal Herrian eta Zuberoan batik bat, kantari berrien sortzeko eta «sustatzeko».

● Maiatzaren 5ean. eratzeko da Lekornen Ipar Euskal Herriko eliz-kantarien biltzarra. Batz bestea laurhun bat kantarik kantatu-ko du, aho batez, biltzar egun horretan.

● Euskaltzaindiak martxoan biltzarrean erabaki berri duenez, irailaren 3tik. 13ra. arteko hamaika egunen buruan eratuko da Donibane Lohitzuen II Euskal Uda Unibertsitatea.

● Uztailaren eratzeko da Ustaritzen Europako herri zapalduen biltzar nagusia.

Minoriek beren egoera azaldu eta aztertuko dute biltzar horren barrera, elkarren arteko harremanak azkartu eta sendotuz, bai eta lau hizkuntzatan agiri edo manifestu delako bat agertarazi ere.

● Ziburuko Hordago argitaraldiak «Euskal Agirigaita» delakoa argitaratu eman berri du, Harribizketa deitu pentsalariak burutu eta taxutua.

Euskal Herriaren etorkizunari bagagotziko, aspaldiotan ezer guti irakurri ahal izan dugu «agirigai» hau bezain interesgarriarik. Errore-kotan, Hendaiako «Mugalde» liburategian salgai dago.

● Ken Kirby zinemalariak «Borroka, la lutte des Basques» deitu filma bat egin du. Filma hau haren haren egin da, amaia gertaera eta elkarriketa bilduz.

Filma hau ez du Frantziako O.R.T.F. delakoa onartu. Nonbait, Frantziako «liberté» hori eta udako ospelak... antzeko.

● Horra non, ustekabean edo, jaso dugun korreoz martxoaren 28-ko. HERRIA astekaria. Bertan irakurtzen ahal dugunez 300 ikasle inguru ari omen da gaur egun Ipar Euskal Herrian euskaraz ikasten.

● Martxoaren 14koan berriz, Añoveros gotzaiaren «homilia» dator, oso-osorik. Hori argitaratu duen euskaldun aldizkari bakarra izan da HERRIA.

● Eugene Goihenetxe jaunaren zuzendaritzapean eratu berri da Baionan, bertako Euskal Museo Adiskideen Biltzarra.

Beste zenbait gauzaren artean P. Lafitte euskaltzainaren euskal gramatikaren berargitarapena erabaki da, Euskaltzaindiak geroztik onartu dituen arauen arabera.

● Bi hilabete eta erdiren buruan bukatu da Baionan gose-greba (huelga). Azkenean, Lapurdiko zenbait agintari eta medikuren aholkuz, erdi amor eman behar izan du gobernua.

Ipar aldeko berrehun bat familiak agiri bat izenpetu zuen errefujiatuen alde, eta horra non berrehun hoiei Espainian sartzeko baimena ukatu dieten. Berrehun hoiek beren protesta agertarazi diote Parisko Gobernuari.

● Pompidou hil delarik eta, Frantziako minoriek kandidatu bat aurkeztuko dute bozka edo autarkia berrietan. Frantziako herri zapalduak bretoinak, alsaziarrak, ok-

zitanak, katalandarrak eta euskaldunak dira.

AIPAMEN LUZETXOAGOAK

● Ipar Euskal Herriko ekonomia —bere eskaxean— hobetuz ari zaigu. Hala azaldu zigun muntxo Kanblong adiskideak bere ren apirilaren 5ean. Elgoibarren kaintu zigun hitzaldi batez.

Ipar euskaldunak konplejoa da izan ditugu 1840 urtez gertatit. Gazteei haurtzarotik irakatsi izan zaie Euskal Herriko kanpo harko zutela lan bila joan, eta hala zelakoan, 2.000 gazte urterterro herbesterratu da Bordele Paris aldera.

Orain, berriz, Baionako Lizeo bi mila ikasleren artean egin du inkesta batez, %70ek. Euskal Herrian nahi duela bizi eta lan egitea erantzun du. Aspaldian ez zen berrelakorik entzuten Ipar Euskal Herrian. Psikologia oztupoak berren, gairiditu egin dira. Ondorio berez berez etorriko dira.

● Apirilaren 27an. Danit Lantart-en Hil Bizikiak deitu antzerki saioa aurkeztuko da Donibane Gazarin.

Doneztirin sortua dugun Danit Lantart gaztea, lehen ere bi antzerki obraren egile dugu —«Hala ez» eta «Noiz»— eta horra onak hirugarrena.

Antzerkigile ezezik, poeta ere dugun gure Daniel, ez bait du gure goeneko alferrik argitaratu eman Hogoi urte. Gazte bat guri mino (Angelu, 1968) deritzan poesia duma. Hogeita zortzi urtetan gutik eskain dezake gehiago euskal literaturaren alorrean.

● Eta antzerki giroan ari garen, aipagarri deritzagu ipar aldean euskal antzerkiak azkenaldia honetan bizi duen une jorria.

Horra, esate baterako, «Hiru Bat» taldeak Donibane Gazarin bertan aurkeztu berri duen Hilarneko antzerki antzerki saioa. Horra ere Ibarlan agertarazi du Eneko Bizkai eta Maria Lorka, euskaraz, berriz, Otsoak Artalde izenekoa.

Orobat Paris aldean ere, Frantziako hiriburua haretan hala berez bizi diren euskaldunak Saio-lekua utziz geroz deitu antzerki obra aurkeztu berri bat dute.

Egia dateke, behar bada, orain tsu P. Lafittek erdi salatu duen ipar aldeko teatroa teknika esansez baliatu ohi dela gehienak gaiak beti Euskal Herriari atxiki direla, oraingoz predikuz beteak direla, etab. etab. Baina, dena dekintza bortitza batez landu eta daitezke teknika eta gaiak, eta, gurutik, ipar euskaldunak herri korik ere lortuko dute orain bezain kementsu jarraitzen badute.

Zer esan, ordea, hego alde hontan euskal antzerkia jasaten du den isiluneaz?

● Bertsolaritzak ez du, alor horren giroan ipar aldean. Zerbait egin nahi litzateke horretaz, gure artean bertsolari zaletasun berpiztu eta indartzu.

Asmo honi atxikiz, bertsolari saioak ugadlu nahi lirateke, bait bertsolari zaharri omenaldi eskainiz —Etxamendi, Erramendi, Larramendi, Barbier...—, azken teotan hego alde honetan usatuz.

Bestetarik, herri jaietan kantuak, pilota-partidak eta beste-koak eratu ohi diren bezalaxe, bertsolari saioak ere egin daitezkeen hi lukete.

Amaitzeko, «Euskaltzaleen Biltzarra» gogotik ekin dio asmo honi, eta bertsolari gazteei laguntza ko erabakia hartu du iadanik.

Ea ba, denaren premian gaude, hego nahiz ipar aldean.

HEZIERA

Gaur ez da urte askoren beharrik gauzak aldatzeko. Korrikari bizkorra bihurtu zaigu denbora. Ez du arnasarik hartzeko betarik ere ematen.

Gure haurtzaroan askok ez zioten eskolari garrantzirik ematen. "Eskolak galdutako mundua" esan ohi zuen zenbaitek. Osasuna eta lana izanez gero ez zegoen bizimodua aurrera ateratzeko beldurrik. Ondo baliatzen zitezkeen bizitzan, irakurtzen zertxobait zekiena. Farre egiten zitzaion eskulanean molderik ez zuenari.

Gaur, ordea, ez dago lehengo konturik. Gurasok zuzen bidaltzen dituzte eskolara beren haurrak. Ikasi gabea motz geratzen dela ohartu dira. "Ikas zazu" esaten diete beren haurrei eten-gabe. "Guk ez genuen honelako aukerarik izan. Damutuko zaizue".

Eskola on baten jabe izatea nahi lukete beren haurrak, karrerako gizonak izatea.

Inoiz baino lege eta hitzaldi gehiago ematen ditu ministerioak. Behin ere baino kezka gehiago sumatzen da herrietan. Gurasok ere lehen ez bezalako ardura jartzen dute. Denetarik ikusten dugu geure herrietan: haurtzaindegiak, eskola-aurrereko gelak, Oinarri Heziera Orokorroko eskolak, batxiller, COU eta profesio ikastetxeak. Batzuk herri bakoitzak antolatutik, besteak bailara mailan eraturik.

Gaur asko hitzegiten da irakaskintzaz eta hezieraz. Kezka haundia dago alor honetan.

Halere nahiko etsirik eta gogaiturik daude ikasi behar duten haur, gaztetxo eta gazteak.

Txikiak dira haurrak eskolaren beharra ikusteko. Alfer alferrik dituzte gurasoen sermoiak. Gaztetxoentzat, berriz, nekagarria da ikastea. Lanean dabilen beren kidekoen inbiritz bizi dira. Diru piska baten ametsa dute lagunartean goza dezaten. Eskolak ez die dirurik ematen.

Gazteek ere ez dute ikasteko gogo gehiegi aurkitzen. Urruti ikusten dute karreraren bukaera. Amaiturik ere ilun ikusten dute askok etorkizuna.

Zenbaitek nahiago du ekintzari ekin eta gizartearen aldatzeko bere burua eskaini, urteetan, alferrikako gauzak ikasten atzera eta aurrera denbora galtzen ibili baino.

Zer gertatzen da?

Irakaskintza eraturik dagoen gizartearen euskarri eta zutabe bilakatzeko da. Ez dago gizarte horrek dituen beharrei eta izan behar dituen aldaketek erantzuteko taxuturik. Edozein Gobernu ere soka-motzetik eduki nahi izaten du irakaskintza. Ez du gizartea apikoz gainera alda dezakeen irakaskintzarik nahi.

Jende esnatua eta kezkatua irakaskintza mota honen aurka jeikitzen da. Beste bide berri batzuk opa dizkio irakaskintzari. Ikastetxeetako irakina ez da bide berri hoiek aurkitu arte barretuko.

Izan ere ikasia izatea ez da aski gizon bilakatzeko. Heziera osoaren zati bat besterik ez da irakaskintza. Hezibide, hots, giza-bide ez den irakaskintza motz gertatzen da.

Bakoitzak bizi duen giro eta inguruari erantzunaz eman behar da irakaskintza. Lurrean ondo itsatsi eta errotutako landarea bakarrik hazten da behar bezala.

Gizonari nor izaten lagundu behar dio irakaskintzak. Haurra gizontzako izan behar du eskolak. Eta, jakina, gizontu den gizon honek, landu den gizon honek, behar bezala lan egingo duen gizartea eskatzen du. Gizarteak jende ikasiari erantzuteko eran anlatutik egon behar du.

Besteak beste patxada eta egonarrria behar ditu gazteak gizar-te aldrebees eta aztoratu honetan. Ikastea ere egin beharrekoa duela jabetu behar du. Bestela ez bata eta ez bestea egin gabe itotzeko arriskua du gizar-teko olatuen zurrumbiloan.

"Haurrak HEZI egin behar du, baina baita ere BIZI egin behar du. Madarikatzen dugun gizar-te galdutako honen barruan irabazi behar du bere ogia eta Herria. Ez dezagun ahaztu. Beraz gizar-te honek inposatzen dizkion jakintzez baliatzen irakatsiko diogu, eta gizar-te berri baten neurri eta bidetan jar dadin ahal-eginduko gara", irakurri dut "Ikastola" deituriko aldizkari batean.

HAZIERA OSASUNTSUA

Hazieraz dihardugun gehienetan "handiagoko egiteak" soilik dihardugula bururatzen zaigu. Hau da, haurraren gorputza, bere osotasunean bezala bere zatietan, handitu egin delakoaz. Estuegia da ordea haziera hitzaren esanahi hori. Gorputza handitu bai, baina baita gorputza indartu eta trebetu ere ulertu ohi da egungo sikipedagogian haziera hitzaz.

Zertara trebetu ordea? Aldakorra da oso gure ingurua: hotz-be-roak, ilun-argiuneak, aldapa-zelaiak, t.a. Berez ezertarako gauza ez den zera da haur jaioberria. Haziz doan eran berez baliatzen hasten da. Aipatutako inguruko aldaketa horiek kaltegarri gerta ez dakizkion, aldaketa horietara egokitzen saiatzen da, beroieria aurrea hartuz gainera askotan. Egokitasun hori ahal den osena lortzen trebetu behar du berak bere gaitasuna.

Trebetasun hori lortzeko bi erak-tako baldintzak bete behar. Nerbio-sarea (sistema nervioso) zabaldu, nerbioen elkarren arteko loturak estutu, gehitu eta indartu beharko batetik. Bestetik berriz, jarduna dugu gure gaitasunak trebetzeko biderik egokiena. Jardun soil batzuetarako egokitasuna berez dakar haur jaioberriaren gorputzak: negar egiteko, eskuak mugitzeko t. a., hortarako beharrezko diren nerbio-gaiak osatuak ekartzen dituta. Beste zenbait jardunetarako egokierarik batera gabe ordea gaitasuna: bero handiegia sumatzen duenean ezin tapakiak aldatu t. a. Nerbio-sarea ez dago hortarako haina osotua eta hortarako beharrezko diren gorputz-zatiak ez daude nahiko haziak, ez daude nahiko indartuak.

Ezin zalantzan jarriko dugu lehen aldi batean haziera fisikoa dela gehien bat heltzen eta indartzen dena. Era hortara bakarrik lortu bai daiteke nerbioen beharrezko heldutasuna, jarduna aipaturiko baino maila osatuago eta konplejoagoetan ahal izan dadin. Izan ere alferrikako lana izanen litzateke gorputza jardun batzuetara behartzea, nerbio-sarea hortarako nahiko heldua ez badago edo jardun hortan "jardungo" diren gorputzak hortarako nahiko osatu gabe badaude. Adibide bat: umeari gaitzeten edo soinekoetan ez egitea erakutsi nahi izaten diogu. Zenbaitetan zigorra erabili ere bai hori lortzearentzat. Baina asko eta askotan ez gara konturatzen umeak ezin duela hori ikasi, ze bere esteen eta este-bukaerako itururen arteko nerbioak hortarako behar den heldutasunera iritxi gabe baitaude. Eta jakina, eginbeharrari ezin aterik itxi ume gaxoak. Erakutsi bai, erakutsi behar zaio ume-ari, baina garaia etorritakoan.

Sorkera beretik hasten da gorputz-gaitasuna osatuz gorpuzten. Esan bezala, zenbait gaitasun lortuz gero jaiotzen da haurra. Baina gaitasun horiek ugaltzen ari dira jaiotza ondorenean ere. Lortutako gaitasun horiek trebetzen erakutsi behar haurrari. Berez ere trebetuko ditu haurrak berak zenbait gaitasun. Baina haurraren inguruak —fisikoak hainbat gizar-tekoak ere— eragin handia du trebekuntza hortan. Pentsa bestela hontan: haurraren ingurua iluna bada (argirik gabeko gela iluntsu batean bizi delako edo) ezingo du haur horrek bere ikusmena trebetu. Ikusmenaren fisiologiazko basea nahiko heldua badago ere ahalmen hori erabiltzeko aukerarik izan ez duela, ez du bestela, lortuko zukean gaitasunik iritxiko. Ikusi egiten du ziur, baina ez ditu gauzen eta irudien mugak ondo bereziko, inguru argi batean ohitu den haur batek egingen duenez.

Honarte esandakoarekin gartigeratu dela uste dut, gizonak inguruarekiko harremanetan trebeki jokatu behar badu, bere ahalmenak trebetu behar dituela. Eta bere ahalmen horiek erabat erabilgarritzekotan, bi baldintza bete behar ditueal: baldintza fisiologikoa bat, hau da: jardunerako beharrezko diren gorpuzkiek, nerbio-sareak eta nerbio-olturek heldutasunean minimo bat bereganatua izan dezatela. Eta bi, lehen baldintza hori betetz gero, heldutasun minimo hori jardunaren bidez indartu eta trebetu dezagula.

Bi ondorio atera daitezke hontatik:

1.—Alferrikako lana dela garaia iritxi aurretik haurra ohitura batzuetara behartu nahiez egin ditzakegun ahalagin guztiak. Kaltegarri ere bai maiz, umeagan horrek sor ditzakeen jokariek bide direla.

2.—Inguru eraginkor bat sortu behar dugula haurraren inguruan. Era hontan bakarrik izanen baitu bere gaitasunak jardunaren bidez trebetzeko aukera. Eta jardun horren bidez trebetasuna lortu ezetik, gorago aipaturiko zatien heldutasuna finkatu, indartu eta azkartu ere bai.

LONTXO OIARZABAL

Lana, langilea, lantegia

ESKOLAK ZERTARAKO?

Behin eta berriro beste galdera batekin gatz, galderak egitea erantzunak eskaintzea baino errazagoa delakoan. Eskolak zertarako? galde-tzen dugu, eta galdera hau egitekoan eskola profesionalaz ari gaituzu.

Egunerokoek aditza eman digutenez, FORD etxeak lantegi ministerioarekin tratatu bat egin berri du. Tratatu hau dela eta zabalzera doan lantegirako zazpi mila langile eskolatuko omen ditu. Hona ba hemen, ustekabea, erantzuna, FORDek eskaini berri duen erantzuna. Berak bere lantegian lan egin dezaten prestatuko ditu langileak.

Egun berean (28/3/74) heziera ministroak egin berri duen hitzaldi baten laburpena azaltzen du egunkariak. Gazteria hezi beharrenez premiaz mintzo zaigu, geroari begira profesional eskola hauetan hezi eta osatuko den gazteria honen garrantziaz. Irakaskintza sail hau ongi antolatu behar dela esanaz, hiru maila bereizten ditu.

Unibersidadean ikasleak sobran baldin badaude, eta irakasle falta dela eta jende gehiegi, ikasle gehiegi dagoela aitortu digute; beraz beste bide batzuk ireki beharko dira. Dirudenez profesional eskolara bidali nahi dute sobran dagoen jendea. Hor dago etorkizuna. Goi mailan tituludun asko dago baina langile soil gutxi, eta hauek gaizki gertuak.

Hemen egin ditugun bi alpamenak badute elkarrekin zer ikusirik, badute elkarren arteko loturarik. Ford etxeak zazpi mila langile hoiek nola eskolatuko ote ditu? Eglazko hezketa bideak zabalduko ote ditu? ala kate-lanean jendeak lan egin dezan soil soilik prestatu? Automazio eran moldaturik dagoen lantegian, egiteko berezirik bai ote du langileak? Zer da langileari dagokion lekua eta lana? Zein eskola profesional horren eginbidea? Irakastaldi horretan nolako jakintza mota jasoko ote du?

Eskola profesionalen garrantziaz hitzegiteari ongi deritzat, baina egiaren erdia baino zerbait gehixeago esan behar dela uste dugu. Izan ere lantegiaren etorkizuna, industriaren emankortasuna, automazioan datza. Gauzak asko eta ugari egin ditzaten lanabes edo makina automatikoak behar dira. Honek di-

ru inborsio haundiak eskatzen ditu, baina, nagusiak, behar hainbat etekin kentzen diotelekoan daude.

Zer da langileak makina haundi horren aurrean egin behar duena? Tresna hoiek lan egiteko prestaketa, heziera berezirik behar ahal du? Eskola profesionalen ikasten duena egin dezakeen lanaz uztar ahal daiteke? Ministerioak arazo honi erantzun ote ziezaiok?

Euskalerrian bertan horrelako zerbait gertatzen zaigu. Izan haundiko eta indartsu lanean ari diren eskolak ezagutzen ditugu. Bilboan, Elbarren, Gasteizen, Arrasaten, Goierri, Pasaian milaka gazte dabilzki-gu geroari begira hezi eta osatu nahirik. Gogoia eta ilusiorik ez zaie falta. Urtez urte istudio neketsuak egin ondoren, azterketak eta esaminak garaitu ondoren, praktika aldetik saio batzuk egin eta gero, titulu bat eskura dutelarik, eskolari azken agurra ematen diote. Bazen garaia! esango dute aho betez.

Baina, eskolatik irten eta gero? Soldaduskara joan beharra ere hortxe hortxe, hurretik, egokitzen zaie, batez ere istudiotan zerbaiten atzerapena izan dutenei. Ugazabek, bestalde, maiteago dute soldaduskara joan beharrik ez duen langilea; batez ere lantegi txikitetan, profesioa gehien landu dezaketen lantegietan, gogoan hartzen duten korapiloa du-zue soldaduskarena.

Azkenik, norbaitek lanik aurki ahal badeza, ikasia duenaz gain ofizioan osatzeko egokierarik izango ote du? Halamoduzko lan batekin konformatu beste erremediorik ez ote du izango?

Europari begira, konpetibidade bati eutsi nahi badiote, lantegiak lehenbait lehen modernizatu egin behar omen dira. Europa aurrez aurre dugularik giroa aldatzen denerako prest egon behar dugu, baina ze kondiziotan?

Badakit eskolotako zenbait zuzendarik arazo hau aztertua duela, bide berriak aurkitu nahirik dabilela, eskolotako arduradunak kezkatu dabil-tzela. Ea elkarriketa bidez arazo hau sakonkiago aztertzeke egokiera izaten dugun.

MIKEL UGALDE



ERRUKO ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoek argitaratua. (Kale Nagusia, 50-1.º Bur-lada - IRUINEA).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 41 95 88

ARPIDE SARIA:

Barruan	350 pezeta
Korreo batasunetako herrietan	400 pezeta
Atzerrietako beste herrietan	420 pezeta
Airez	Aldez aurretik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) 8 pezeta
Moldiztegia eta Idazkoka.
«Gráficas Navas»
A. Adoain, 1. IRUINEA
D. L.: NA. 80-1963

zenbait berri

Apirilaren 23an., Eibarren, Jose Luis Lizundia Eibar eta Deba bailararen egoeraz mintzatuko da, historia eta geografia ikuspegiaren arauera.

● Apirilaren 27an., Benito Lertxundi eta Gorka Knörr kantari guztiz ezagunek emanaldi bana eskainiko dute Azkoitiko "Illarra" deitu gau-club delakoan.

● Maiatzaren 4ean. Donostiako "Argia" taldeak bere saio berezi hoitako bat aurkeztu ahal izanen du Gasteizen. "Lesakako dantzak", "Lapurdiko Ihauteria", "Urdiango dantzak" eta "Lizarrako Larrain dantzak" izeneko dantzaldiek osatuko dute donostiar taldearen agerraldi hau.

● Maiatzaren 4etik. 26ra. arteko hogeitaka egunen buruan eratu da aurtien Eibarko IX Umeen Euskal Jaia delakoa.

● Ekainaren 2an., mendekoste jaien barrena, Donostiako "Goizaldi" dantza taldeak jaialdi bat eskainiko du Bergaran.

● Ekainaren 9an., berriz, elhen aldikoz eratzeko da Bergaran Umeen Euskal Jaia, Arantzadi Ikastola antolatzaile delaria.

● Aurten Azkoitian eratzeko da Dantzari Txiki Eguna. Iaz Oñatin eratu zen eta duela bi urte. berriz, Zaldibian. Aurtengo Dantzari Txiki Egun hau maiatzaren 26an. eratzeko da.

● Ermuan "Abeslariak" izeneko kanta talde berri bat sortu da arestian.

● Lekeition ere sortu berria dugu "Koldo ta Elu" deritzan bikote gaztea. Bikote honek beronek burutu doinuak kantatu ohi ditu, bai eta Laboa, Lekuona eta Azkue zenari jasotakoak ere.

izan du urtez urte, eta hona non horrenbeste urtetan izan duen ehundaka ikaslek omenaldi hori eskaini behar dion Arantzazun.

Horrenbeste ikasleren artean, nahiz eta bazkari hotza atera, baldin euskaraz mintzo badira, bihotzez, zorionak Xabier!

● Dirudienez, ez dira maiatzean ere eratu Lizar-diren omenetan Zarautzen eratzeko ziren saioak.

Jakin ahal izan dugunez, han-hemenka iritziak bilduz, antolatzaileek Lizardiri buruzko —bere bizitzaz, idazlanaz, poeta mota eta mailaz, etabz.— azterketa lehiaketa bat prestatu asmoz dihardute, eta, behar bada, udazkenerarte atzeratuko da Lizardiri zor zaion omenaldi hori.

Udazkenean eratu dira, beraz, hitzaldi sailak eta gainontzeko saioak, eta ordurako argitaratu nahi izanen dituzte antolatzaileek aipatu dugun lehiaketa horretan parte hartuko duten idazlanak.

Asbo bikaina zarautzarrena, eta ezin uka, era berri honetaz Lizardiri egin behar zaion omenaldi hau askoz ere jantziago aterako zaigula.

euskaltzaindia

Lerro hauk argitara ahala eratzen ari da —hilaren 18 eta 19an.— Arantzazun Euskaltzaindiaren hileroko bilera, bai eta herri izenen azterketa eta finkatzea erabaki behar duen toponimia batzordearena ere.

Koldo Mitxelena dugu Euskaltzaindiak apropos izendatu duen batzorde horretako zuzendari. Idazkari, berriz, Jose Luis Lizundia. Horrez gainera, eskualde bakoitzeko ordezkari gisa, Bizkai aldetik Jose Luis Lizundia heria, Araba aldetik Urrestarazu, giputz herrialdearen izenean Xalbador Garmendia, nafar ordezkari Jose M.

ZENBAT GARA

● "Arte adiskideak" delako elkarte antolatzaile delarik, programatuak dira aurtien ere Iruñean Nafar Jota eta Euskal Kanta lehiaketak.

● Dirudienez, eta oraindik erabat erabakitzea dagoen arren, ekainaren 13an. eta Arraten eratu omen da aurtengo Trikitilari Eguna. Duela bi urte Usurbilen, eta iaz Azpeitian. Aurten, berriz, Arraten. Ez da, ez, leku txarra.

Eperrak kantatzen dau
Arrate gainian...
Eperrak kantatzen dau
Arrate gainian...

albokari txapelketa

Esan bezala, apirilaren 28an., Jondoni Pauloren egunez, eratzeko da Zornotzan I Euskal Herriko Albokari Txapelketa. Eleuterio Larruskainekin mintzo gara honetaz, eta hona adiarazi digun programa: Goizean goiz, Zornotzako "Gaztedi" Txistulari Taldeak hauzo-jira eginen du. Ondoren, 10,30etan. Meza Nagusia pasiotarren plazan.

Meza amaitu ahala, "Gaztedi" dantza taldearen agurra, Berna-ko "Arin-Arin" dantzarien saioa, eta Zornotzako "Gaztedi" txistularien bigarren agerraldia.

Bazkalostean, 4,30ak. inguruan, I Euskal Herriko Albokari Txapelketa eratu da. Albokari bakoitzak nork bere panderu-jotzaile beharko du lagun, bai eta guztiz ezagun diren hiru puntuok jo ere. Sariok ugari izanen omen dira, diruz zein kopaz eta bestez.

Ondoren zenbait kantari bizkaitarren emanaldia, hala nola Xeberri, Lupe eta Gonzal Mendibil.

Azken batez, nola ez... erromeria.

omenaldi girotan

Irakurleak dakikeenez, giro aski nahasia zelarik eta, ez zen joan zen abenduan Baztango Lekarotzen eratu Aita Donostia eta Aita Olazaranen omenez programaturik zegoen ospakizuna.

Euskal Dantzarien Biltzarrek ez dio, ordea, asmo eder horri etsi, eta, dirudienez, aurtien ospatu asmoz ari da, oraindik erabakitzea dagoen egunen batez.

● Apirilaren 28an. omenaldi bat eskainiko zaio Xabier Peñari Arantzazun.

Xabier Peña Albizu Tolosan jaioa dugu, baina duela hogeita bost urte Bilbon bizi da. Xabier euskaltzain laguntzaile dugu, eta euskaraz ikasteko metodo klasiko baten egile, sasoi batetan erabat erabilia izan zena.

Hain zuzen, Xabier Peñak Bilbon iragan duen azken hogeita bost urte honetan euskaraz irakasten ihardun

Satrustegi, eta mugaz handiko boz emaile, Haritsxelhar.

Bestalde, zenbait kontseilari ere izendatu da lan horretarako, hala nola Jon Etxaide eta Juan San Martin gipuzkoarrak, Lino Akesolo eta Luis Villasante bizkaitarrak, Lopez de Gereñu eta Odon Apraiz arabarrak, Aingeru Irigaray eta Basilio Sarobe nafarrak, eta Dasantze eta Eppeherre ipar aldekoak.

Toponimia azterketan buru belarri ari direnen zerrenda hau bukatzeko, aipagarri iruditzen zaizkigu Merino Urrutia —Errioxaz— eta Hendrike Knörr —Arabaz— moldatzen ari diren ikerketa sakonak.

igotz

Euskal izen hau arestian jarri diote Trintxerpen haur jaio berri bati. Zenbaitentzat irudi luke izen berri dela; ez da, ordea, horrelakorik.

Egia esan, izen hau —bere urritasunean— aski hedatuxea da Bizkai aldean batik-bat, ez bait da alferrik izen hau jatorriz bizkaitarra.

Guk dakigunez, behintzat, ez du orain arte izen honek oztipo handirik izan Euskal Herriko errejistroetan. Eta, baldin oztoporik izan badu, ez da izenagatik beragatik izan, euskaldunok —hainbatetan bezalaxe— bat



GORKA KNÖRR

ez etortzeagatik baizik. Izan ere, izen honek zenbait boladatan hain harrera ona izan du eze, neskakta mutikoei jartzen bait zieten, gurasok nahi eta kome bezala. Hauzi honetaz Bilboko jueza asaldatu zen lehenik, gizon ala emakume izena zenik behar zuela erabaki.

Noski, legeren arauera, izen orok behar du sekular berezi. Gaztelaniako "Resurrección", "Rosario" eta berrelakoak gizonen artean bazterrarazi diren bezalaxe, euskal izenen artean ere behar dugu gauza erabaki seriohasun bati atxikiz, azken batez gure onetan izan delakoan gainera.

Edozein modutan, Igotz izenari bagagozkio, erabaki ere erabaki zen Bilbon honetaz, eta baldin oker ez bada, gaude, Jose Luis Lizundiak behar izan zuen erabaki.

Igotz Aulestian dugu, hots Murelagan, bertako duen Igotz-ko Santa Eufemia, non sasoi batetako erromeriarra handia izaten zuen Lea, Deba eta Artibai herrialdeetan, giputz-bizkai arteko mugalde guztian baina, alegia.

Baina, hariari jarraituz, "santa" denez eta ez "santxo" egoki eta bidezkoago zirudien neskaktxei atxikitzea, mutikozkorrei baino.

Ohar bitez ba honetaz guraso berriak, eta horra bere izen jator bat, zentzuz eta taxuz gordetzen dugun arte iraun dezakeena.

egin asmoz

Dirudienez, zenbait obra egin nahi da da Gipuzkoako Diputazioaren arazoari delakoan. Izan ere, beste zenbait gauzaren artean, liburutegia nahi litzateke eraberritu, eta, liburutegia batera, bai eta erakus-gela bat eta kultur batzoki bat ere, liburutegiaren inguruan sortarazten diren ekintza biltoki apropos bat eduki dezaten, hala nola euskal eta euskal literatur sailak, prehistoriak, arkeologiak eta espeleologiak, etnologia, arte etab.

Horrez gainera, "Julio Urkixo" deitu Mintegiak bere gela bat edukiko omen du, bai eta Euskaltzaindiaren ere.

Obrak datorren udazkenerako amaitzeko omen dira eta liburutegia, behinik-behin, hurren ikastaroa hasi bainan laster nahi litzateke bukatu.

● Egin asmoz ezezik, Antton Narbaizak turutur marra du iadanik mendizaletasunaren historia bat. Dikigunez, egun hautan gertatzen ari den "Tximist" delako espedizioaren ondorioekin amaiera emanen omen dago bere lehen liburu honi.

Lan guztiz polita da, argiro idatzia, ez bait da alferrik gure Antton idazle urri bezain fina. Narbaizak xututu duen historia hau gaztetxoan mailan moldatua da eta KIMU sailak argitaratuko bide du.

● Arabar folkloreaken alde zerbait egin asmoz Arabako Diputazioaren Kultur Sailak I Zortziko eta Iribilketa Sariketa moldatu berri du.

Konposiziook —zortzikoz nahiz biribilketaz— txistulari banda osorako beharko dute burutuak izan, delarik kin batera kantak ere ezarri, arabar gaiei atxikiz euskaraz eta gaztelaniaz adiaraziz.

Azken epea apirilaren 20an., eta sariak, berriz, 20.000 pta. bakoitzeko.

euskal agirigala

Ziburuko Hordago argitalaririk Euskal Agirigala delarik, "Harribizketa" deitu pentsalaririk burutu eta taxutua.

Euskal Herriaren etorkizunari bagagozkio, aspaldian ezer guti irakurri ahal izan dugu "agirigai" hau bere interesgarri. Bada bertan, bai, zer ausnar eta pentsa, eguneroko jokabidean azaltzen zaigun hain planteamendu nahasiren argigarri alde batetatik, eta euskal problematikari buruzko hil ala biziko ekintza batetatik.

Ez da erraz hiruzpalau hitzetan itxurazko labur bat egin ahal izatea, hitzak tamainan neurtu behar gainera. Dena den, hona zenbait puntu, azterketa baino, informazio eran:

● Euskal Herriak, herri zentzu batez eutsiko jabetasunari edo ez dio sekula santan eutsiko.

● Herri zentzun horretaz baliatzen, hizkuntza dugun, ez helburu, baina bai oinarri eta lokarrik bere eta garrantzitsuen. Hizkuntza galtzen dugun egunegureak egin du, Herri bezala behinik behin.

● Herri zentzu horri buru belarri eta zintzoki irratiz gero eta zailagoa da. Zerbait egin behar dugu geuk egin beharko dugu. Ez digu inork lagunduko.

● Gaurko, Euskal Herriaren problema —Herri bezala iraunen badu— ez da klase problema, Herri bezala baizik. Euskal jendea zenbat eta gehiago eratu, are "errealistago" irudituko zaio zenbait ikuspegi eta "utopikoago", aldiz, Herri nortasunaren atxikimendua.

● Munduan barrena, edozein koloretako inperio, burruka, politika, hizkuntza eta folklore sailak laz maila gaindituz joan ohi da. Giro horren zerbait eginen bada, lau maila hoik alderantziz gertatzen beharko dira.

● Kontu izan, azkenik, abiada izugarri batez hitzatzaz maldaz behera doakigula. Euskara ahoz aho ahal izan duen azken jenerazioa ezagutzen ari gara. Zenbait urte gutiren buruan, instituzio oinarrituko da euskararen salbamena. Instituzio hori rutzeari ekin beharko diogu. Triunfalismoa, harrak eta sentikeria aldeaz aurretik utzi, hau guzti hau tutan hartu beharra dugu geure ekintza moldatzen.

● Elkartasunean, ekintzan eta jokabide bateratuetan dugu geure etorkizuna. Jenerazio honetan agian, inoiz ez. Egingo ahal dugu?

AMATINO

FRANTZIAN NOR BURU ? Egiturak, gero eta bortitzago

Aspaldidanik gaixo zegoela adierazten bazuten ere, inork ez zuen uste Frantziako lehendakaria osasunez hain larri egongo zenik. Uste-gabean eman zigun azken agurra frantziar lehen agintariak. Elitzkizunak egin ondoren, Pompidouk utzitako zuloa nork beteko duen buru belarri borrokan dabilta Frantzian.

Hiru lehendakari gai dira indar gehien dutenak, lehendakariak eskuratzeko posibilitate ugari dazukatenak: Chaban Delmas eta Giscard alde batetik eta ezkertiarrek bereganatu dituen Mitterrand bestetik. Eskuindarrek ez dute lehen aldi honetan ezkertiarrek hainbat batasunik erakutsi. Messemere lehen ministroaren jokabidea dela eta aztoratu ditu eta haserretu ere frantzez eskuindarren buru bihurtzak. Bestalde, ezkertiarrek elkar-turik, bat eginik, azaltzen dira Mitterrand aurrera aterako duten ustean.

Eta hemen dago kakoa. Nor izango ote da Frantziaren buru? Hemen aipatu ditugunaz gain bada beste lehendakari-gairik ere, bada bere burua aurkeztu duen gehiagorik. Idazten ari garen une honetan gutxienez badira 25 horretarako ize-na eman dutenak. Servan Schreiber bera ere aurkeztuko ote den zalantza zabaldua da. Bigarren mailako jaun hauek ez dute lehen al-dian posibilitate haundirik izango, baina bigarrenengoan asko dezakete. Ingalaterran bertan ere liberalak izan dira une batetan atxurra beren heldu-lekutik izan dutenak. Denera jo eta konserbatiarren eta la-boristen artean azken hitza hauek eman dute.

Zer gertatuko da Frantzian? Zaila baino zailagoa da geroaz mintzatzeko. Frantziak une zailak eza-gutu izan ditu, ezkertiarrek nagusi-tuz zihozten uneetan ere azken pausoa eskuin aldera eman izan dute frantzez. Oraindik gogoan daukagu duela ia sei urte Frantzian izan kinka. Geroztik Mitterrandek bere indarra erakusteko zoria izan du, baina azken hitza eskuindarrek izan dute. Eta bildur gara bildur, oraingo honetan beste horrenbeste ez ote zaien gerta-tuko.

Lehen ekin aldian sozialistek erabateko nagusitasuna erakusten ez badute, behar hainbateko nagusitasunik ez dea eta bigarren ekin al-dian sozialistek nagusitasuna lortu-ko ahal dute? Nahiko lan. Repu-blikanoak eta UDR alderdikoak, bes-terik ezean, ezkertiarrei gogor eki-tek erraz elkartuko direlakoan gaude.

Eta Frantziako auteskundeetaz mintzatzerakoan geure geurea den kezka badugula ere ezin uka. Ipar aldeko euskaldunek orain artekoa ezagutu dute, herri txikien alde (?) eman izan duten zenbait pausuren berri badute. Gogorkeria dela eta zenbait talde lege kanpo utzi dute salakuntza horren aldeko frogarik eskaini gabe. Guk ipar alde hori dugu gogoan. Zer ote da gehien komeni zaiena? Orain arteko txarra ezagutu dute. Era eta molde horietan jarraipena eman nahi iza-tea gure kalterako dela ezin uka.

Baina eta ezkertiarrek? Hauek herri zaletasunik erakusten ahal du-te Langilegoari begira, Mitterrandek adierazi duenez sariak jasotze-ko pausorik emango omen du, gau-zak hestu hartu beharrean lasai-kiroago eta pertsonari dagokion es-kubidea gogoan izanik gobernatu-ko omen luke. Bada zerbaiz. Izan ere goseak dagoen txerriak ezku-rra amets.

Frantzia auteskunde giroan mur-gildu zaigu. Sindikato agintariak ere dei bereziak eginak dituzte. Aurten maiatzaren lehen egunean agerkunde edo manifestazioak sus-pendituko ote diren edo hotsa za-

baldua dute. Ezkertiar giro nabar-menegirik ez dute azaldu nahi non-bait erdi inguruan dabilzan zen-bait bildurtu ez ditezten.

Horretarako espezializatuak, be-reziki horretarako jarriak dauden enpresen halako miaketa batzuk eginak dituzte. Ezkertiarrek indar-tsuago agertzen dira, baina ez era-bateko nagusitasunez agintea es-kuratzeko hainbat indarrarekin. Eta bigarren ekin aldiaren zai gelditzen badira gauzak lehenean segiko du-te. Hauxe da gure kezka.

M. U.

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak:

Etxekoa: 65 19 60

Landolakoa: 65 19 33

URRETUXA

Urrutizkiña:

Landolakoa: 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIA

URTETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10 - Urrutizkiña: 417751 - Etxekoa: 422700 - DONOSTIA



aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK,
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA:
FUENTERRABIA, 10 - URRUT. 11459
DONOSTIA

Laneza zabaltea da Españaiko ekonomiak aurten dadukan arrisku-rik latzena. Inflazioari aurka egi-teko agintariak zenbait neurri har-tu dute: alde batetik, prezioeri eta errneta-diru sarrerari muga ezarri nahi izan dio, aurtengo urte hone-taako; bestalde, berriz, diru-iturriak hertsu egin ditu apur bat, eta ban-kuak kredituak murriztu egin di-tuzte.

Neurri hauek, berez, inflazioaren aurkakoak dira eta prezioen abia-dura geldiarazi behar luteke. Bai-ña, arriskua hontan datza: prezioak geldituz batera, produzioa ere mo-tetzea eta, bidenabar, lana eskastu eta langabezia hedatzea.

Peril honen aurrean, O.C.D.E.-ren txostenak, zalantza izpirik ere gabe, politika ausarta gomendatzen du: sistemari behar duen adiña di-ru opa behar zaio alde batetik, bestela hazkundera geldiarazteko arriskua bait legoke; honekin ba-tera, Estaduko gastuak ez dira ema-tu behar; aldez, gastuak handiago izan behar dute diru sarrerak bai-ño; defizit-politika jokatu behar da Estaduaren gastu-sarrera aldetik.

Estaduaren gastuak batik bat osa-sunaren alde, etxegintzan eta ira-kaskintzan eraldi behar omen dira.

Baiña, premia: hauekarako diru anitz behar delarik, nondik atera eta bil diru multzo eskerga hori? Estaduak bere gastuak ordaintzeko behar duen dirua hiru iturritatik bildu dezake: a) zerga-iturritik; b) Erresumako Banketxeari kreditua eskatuz; c) Kreditua herriari eska-tuz mailegu bidez.

O.C.D.E.-ren txostenak lehenbizi-ko iturrira jo dezatea eskatzen die agintariak. Ez beste bi iturrietara. Erresumako Banketxeari, nazioko banku nagusiari, dirua kentzeak, in-flazioa birbirtu baizik ez bait luke egingo, Estaduak Banketxetik har-tzen duen diru-korrontea sistemara bideratuko bait litzateke; eta diru gehiegia eskaria anpatu egiten du, eta prezioak altzarazi.

Biderik zuzenena, hortodoxoena, zerga-iturriak eraberritzea izango omen litzateke, zerga-legedia ber-ritzatzea, alegia. Lehen aipatu di-

tugun herri-premia handi horiei erantzuteko (osasunaren alde, etxe-gintza, irakaskintza, eta abar) diru-iturriak bidezkoena gaurregungo zerga-sistemaren egitura eraberrit-zea izango omen litzateke, O.C.-D.E.-ko jakitunen iritzira.

Hitzez eta esanez zerga-sistema-ren eraberritzea ba doha aurreruntz. Baiña aldaketa sakon bat lortzea zinez zailla izango zaie agintarie. Besteak beste, hauzi honetan ager-tzen da kontradiziorik handienetako bat. Españaiko ekonomia aldeko estrategia, hazkunde ahalik bizko-rrenaren zerbitzuan ezarria dago. Ideologia ere estrategia horren mol-dekoa dabil, gaurregun, hasi hitzal-dietatik eta aldez kariataraño. Urte guti barru, España, ekonomia al-detik, Britainia Handiaren gainetik egonen dela iragarri du arestian, Bizkaiko Labe Handien Buruzagi den Villar Mir jaunak. Profezia hori, ne-re ustez, ez dago funtsik gabe egi-ña. Ekonomilariak, guziak ez bada ere, gehienak, eta izen handikoe-nak, sistemari txit kokatuak ager-tzen dira eta beren egiteko nagu-sia hazkunde sakratua nola lortu ahal daitekeen erakustea baiño ez dela pentsatzen bide dute.

Egia da zerga-sistemaren erabe-rritzea munda guziaren ahotan da-billela. Baita aipatu ekonomilarien ahoetan ere noski. Baiña ez da arazo hau —zergaren arazoa— egiaz ardatz egiten duen arazoa. Behin eta berriro esanez, hazkunderen oinetan beharrezkoa den gauza oro erratzen da.

Zerga-sistemaren adaketa sako-nak, hazkundera zalantza ezarriko luke, kapitalgintza moteldu egingo litzake, diruak ihes egiteko tental-dia sendituko luke, baloreen baltza suntsituko litzateke, diru-aurreratzea mehartu eta hazkunderen giltza-rria den inborsioa koloka ari...

Gauzak, beraz, txit mantso joa-nen direla uste dugu. Krisis go-rririk ez da ageri mendi gainean eta sistemak, inflazioaren eta zer-ga egokien laguntza, bere egitu-rak gero eta bortitzago eraikiko ditu.

G. A.

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteliz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Al-cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean Iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Cerulia, Orense eta Vigo-ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA

Telefonoak: 450313 eta 450723

Aptdo. 1361


Anbdo. 1361

GIPUZKOA'KO LANTEGIAK AURRERA ATERATZEN LAGUNDU

Gure eginkizunetan audienetako bat, Gipuzkoa'ko lantegiak aurrera ateratzeko laguntza ematea da. Gure diru laguntzakin, Gipuzkoan lantegi asko zabaldu eta indartu egiten dira.

Diru laguntza au era berean, janari gai, etxegintza, burni, mikromekanika, argi indar eta elektronika lantegietara banatzen da... eta beste edozer eratakoentzat ere bai.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA



LIBURUAK


Santa Kruz apaiza

ORIXE
GERO EUSKAL LIBURUAK

Gutti-asko ezagutzen ditut Orixe egindako idazlanak; ez dut uste bat bakarrik duenik hau baino errazagoa denik. Nere gaztetan behin baino gehiagotan hartu nuen esku artean, denbora pasa, zerbait egin behar-eta, atsedean pixka bat hartzeko asmotan. Gerra aurretik argitara zuen Orixe; gaurregun inon ez da aurkitzen lehen edizioarik.

Liburu zailak eta nekosoak ateratzen direla-eta diotenek, honatx liburu erraza, gaiez eta hizkuntzaz. Gaia ezin eta irakurgarriagoa da. Santa Kruz apaiz gerrariaren historiak dakazki. Amaika aldiz entzun nik gara Santa Kruzek hau egin zuela eta bestea egin zuela. Askotan gehiegieria ugari erantsi zaio. Gizon sonatuen inguruan beti sortzen dira halamoduzko ipuak eta kontakizunak eta Santa Kruz ere ez zen hoik gabe geratu. Egia guztia ez bada ere egia dena liburu hau oso egokia du. Zaharrek bezala gazteek ere pozik irakurriko dute, historia guztia erraz konprenitzeko ez baitute inongo malkarretan ibili beharrik izango.

Euskerari buruz, gauza bera. Erraza, herrikoa, inoako sasirik eta malkarrik gabea, ixuri haundikoa eta euskaraz ondo dakianak egunero egiten duenaren antz-antzekoa. GEROK argitara du liburu polit hau. Asmatu egin duela, uste



dut. Hainbeste liburu potolo eta mamitsuren artean bat behar genuen arina, erraza, denbora pasa irakurtzen den horietakoa. Baka-zioak gainean ditugu eta gazte jendeak pozik irakurriko ditu Santa Kruzen historiak. Liburu halakoxea delako, dudarik gabe, asko zabalduko da. Izan bedi euskararen eta euskaldunon onetan. Zorionak GERORI eta jarrai bekio, orain arte bezain gogoz, lanari.

A.B.

ZINE

MARRAZKIA ETA ZINEA

Denbora puska bat igaro da Sistiagak eginiko pelikula ikusi nuenetik, eta hasera batetan kritika bat egitea pentsatuaren, ez nuen horrelakorik egin, iritziz garbi bat emateko gai ez nintzelako.

Gaur ere, kritika egiteko gaitasun gehiegirik ez baldin badugu ere, Sistiagaren antzera zinea egin duen Norman Mc Laren aipatu nahi nuke.

Norman Mc Laren, 1914. go Apirilaren 11ean Stirling-en (Eskozian) jaio zen. Gaztetandik zuen zinera-ko joera eta, hemeretzi urte zituela, Glasgow-ko Arte eskolara joan zen ikasle. Han, Oscar Fischinger-ek egindako «Rapsodia N.º 5» ikusi zuen; marrazki bizidunak osatutako filma laburra.

Berak ere, pelikula bat egitea erabaki zuen, baina 35 milimetrotako kamararik ez zuen filmatzeko. Eskolako proiektore bakarra beste-rik ez, eta urritasun hartan, argazkirik gabeko pelikula osatzea bururatu zitzaion.

Mc Laren-ek, 1935. urtean bere «Colour cocktail» agertu zuen Glas-gow-ko III. zinezaileen jaialdian. Saria ere jaso zuen.

Handik urte gutxitara, bere izena-ren sona mundu guztira zabaldu zen. 1952. urtean, Hollywood-ko «Arte

eta Jakintza Akademiak», «Oscar» saria eman zion.

Norman Mc Laren-ek, teknika asko erabili zituen bere lanetan; «Cameraless animation», «Pastel Method», «Efecto multiplano», «Percepción retiniana» eta bestetan.

Hauek guztiak, ez ziren berak sortutako teknikak. 1932. urtea baino lehen beste zinegile batzuek marraztu bait zuten zenbait zinta.

Hala ere, Mc Laren-ek, bere ja-kinduria guztia itsatis zien marraz-tutako zintei, eta era horretara, ar-lotetzat jotzen zen gaia, aberats bihurtzen zuen bere ukituz.

La hauek burutzeko ordea, dirua erruz behar izan zuen, eta Cana-da-ko «National Film Board» erakun-deak lagundu zuen gehien bat.

Luze izango litzateke gizon honek erabilitako teknika guztiak aipatzea, baina «Cameraless animation» egi-terakoan erabilitakoaren berri eman dezagun.

Zintan, zeruloidean bertan egin zituen marrazkiak. Fotograma ba-koitzak, 22 x 14 milimetrotako luze-zabalak zituen, eta bost minutuko pelikula batetan, 7.200 marrazki sar-tzen dira.

Marrazki zailak, egunero 50 egi-ten zituen. Errazak berriz, 250. Ez zen beraz txantxa.

Batzuetan, gaiaren aldakuntzaren arabera, arian arian egiten zituen marrazkiak. Bestetan, marrazki ez-berdinak elkarren ondoren egin eta osaketaren (montajearen) bidez tai-utu pelikula.

Bere lanik gehienetan, irudiaz ga-nera hotsa ere itsatsi zion zinta-ren ertziari. «Hots sintetikoa» deri-tza zarata mota honi.

1937. an hasi eta 1940. an landu zuen batik bat hots sintetikoaren arloa.

Zinta gainean 50 edo 60 bat arrasto elkarren ondoan egin eta gero, doinu atera zuen. Zenbat eta arrasto ugariago, orduan eta doinu finago. Eta alderantziz, arrastoei zenbat eta bakanago, doinu atera eta lodiago.

Tintak ere, bazuen zerikusia. Ko-lore batzuetako arrastoei, beste batzuetakoekin baino hots gogorragoak ateratzen zituzten. Teknika hau menperatuaz, hots harrigarriak sor-tu zituen Mc Laren-ek.

Teknika aurrerakoi baten aita de-la esanez buka dezagun gaurko. eta bere lanak dastatzeko aukera izaten baldin badugu, inbestigazio lanetatik irten gabe jardun zela ja-kin dezagun.

XABIER UNANUE

ARTE

Gure artistak eta beren jokaera

Azken bolada honetan, zenbait afari, erakusketa nahiz konzertotan gure herriko hainbat artista-ekin egin izan dut topo: Oteiza, Txillida, Lete eta Iriondo, Bonifa-zio, Lertxundi...; eta, beti bezala, hauen lan etengabe, serio eta zin-toaz ohartu naiz, eta orobat no-lako arreta duten beren krea-zioak gure herria zerbi dezaten. Inoiz pentsatu izan dut, gizon hauek, be-re bizia eta lanaren truke ez du-tela deus askorik jasotzen. Ez dut esan nahi horren bila dabilzanik ez behar dutenik, bere barne-mun-du sortzaileen aski poz eta bete-garri bai baitute; baina, bere bai-tan sofitritzen ari direlako irudipe-na dut.

Zenbaitetan ez baita ezagutzen haien lana eta bai kritikatzeko, ho-rregatik sofitritzen dute. Ez baititu-gu ezertarako ere gogotan eduki-tzen, jendeak uste duelarik xoro batzuk edo direla, edota gauza po-litak egiten dituzten poetak dire-la, mundutxo burges batean biziz eta egunoroko arazoetatik urrun.

Baina, beste hainbestetan beza-laxe, gauzak ez dira horrela. Eza-gutu eta gero jakinaren gainean hitzegin beharko genuke, gutienez. «Burgesatuak» daudela, «romanti-zismo» nahiz «marxismo» dela eta horrelako beste zenbait «ismo» esa-naz azpijanekeo panfletoak bete-tzeak ez du zer ikusirik gure ar-tista eta beren obrekin, bat edo besterekin salbu. Guk bizi ditugun egoera eta zapalketak bizi dituzte horiek ere, gure oraina, presentea,



...gure konpresioa eta laguntza...

maite dute eta gure geroa lantzen saiatzen dira. Ez da ez guti, jau-nok, gure garai hauetarako!

Eta zer eskatzen digute horren truke? Konpreni ditzagula eta uste on dezagula. Zabal ditzagula pittin bat geure buruak eta sake-

lak. Bizi ere bizi behar baitute ar-tistek, eta biziko badira jan, ira-kurri, gozatu behar dute guk be-zala. Publikoaren oniritzia eta tx-a-loa behar dute aurrera egiteko, noski. Maitasuna eta heurrikiko konprensioa bilatzen baitute, beste edonork bezala. Horren itxi eta herstuak ote gara, bada, gure ir-rean bizitzeko eskubidea ere uka-tzeko?

Ene adiskide batzuen gela, poe-taren harako esaera hura dago ida-tzia: «Zein ona den herriagatik hil-tzea; hobe ordea herriagatik bizi-tzea». Geure bidea luzea dugula iruditzen zait eta, hala nola gure artistek, guk ere pixkanaka ibili behar dugula, egunoroko seriotasu-naz. Su artifizialak eta suziri ar-gidunak politak eta bizkorak di-rateke, baina ez dute argitzen bizi dugun gau iluna. Hala frogatzen du azken hamabi urte honetako historiak.

Ez dut, noski, inor goraipatu na-hi izan. Nori berea, bakoitzari zor-zaiona eman nahi ukan diot eta justizia egin, denen agirian. Gure artistek, maiz, sofrimendu handia dute eta ez beti bere erruz. Bizi ditugun aldiak eta denborak gaitzak dira, horregatik, Peguy-k di-enez, egun inoiz baino hobeki or-daindu behar da itxaropena, espe-rantza. Eta gure artistek badute eskubiderik. Ez da eskupekoa nor dieguna, gure konprensioa eta la-guntza baizik. Aski bedi «post mor-tem»-eko omenaldiez!

EDORTA KORTADI

Donosti-Currerki-Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azkal
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru
aurreratzea
Baserril, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perla joan
etorriak

Baserriarren alde

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTITATIK

Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkifia: 41 20 65

DONOSTIA

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gafiora esne putzuak,
Olek guztiak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERREENTERI

ETXEKO- ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE
ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten be'zezu
ATOMIZADO LAGARTO — Jaboia erabilli beti
Eskuz be'zabiltz, LAGARTO — Jaboia bear dezu

JABON LAGARTO, garbiketarako jabol bakarra
Etxe-ko-andrearentzat neska-merik egokiens.

JABON LAGARTO!

ERAMAN-EKARRI'rako

AGENCIA

Transportes A L E

EUSKAL IRRATSAIOAK
ERRI GUZTIRAKO

Urrutizkifia: 421869 - 427726
Iparraguirre, 8 - DONOSTIA

ELIZAREN BERRI FEDEA ETA ERRIGINTZA

LIBURU BERRIA EUSKAL HERRIKO ELIZAZ

Hartu berria dut liburu berri hori: Manu E. Lipuzcoa. La Iglesia como problema en el País Vasco. Edit Ekin. Buenos Aires.

Zazpigarren kapitulu irakurtzeko denbora izan dut: «La Iglesia vasco-peninsular ante la situación de la posguerra y el evento del Vaticano II».

Laburpen aski interesgarria da. Halere, arrazakeria apurren bat ote darien esango nuke: Euskal Herriko apaiza herriari lotua Espainiako baino areago egotea, euskal ethniaren jatoriasunari dariona litza-teke. Bestalde, kausa-efekto bitxi bat ezartzen du, dioelarik, 1960ko 339 apaizen karta famatua zela-eta, gazteria sail bat mugitzen hasi zela Euskal Herrian. Gainera, ez dut uste, Batikano Ilaren ondoren Euskal Herrian apaizerian gertatu den fenomeno adierazten duenik. Apaizeria hori definitzeko, errejimenarekin dagoen multzo txikia eta beste talde handia delako banaketan gelditzea, uste dut, eskema arrunt ximplean gelditzea dela. Hori gertatzen zaio, ordea, arazo guztia (edo doi-doi), apaizeriarengandik errejimenaren kontra ala alde atera diren dokumenduetan ipintzen duelako.

Dena den, eta okerrak oker eta hurguneak hurgune, kapitulu ari interesgarri deritza, eta kapitulu zerrendaren tituluek ere gai interesanteak direla ematen dute.

EUROPAKO EKONOMI ELKARTEAREN (EEE) GOTZAI BATZORDEA

Bruselasen bildu berri dira EEE-ko zenbait nazio-tako Gotzai Batzarren ordezkariak. Halatan, han ziren Belgika, Alemania federal, Frantzia, Irlanda, Italia, Holanda eta Luxenburgoko Gotzai Batzarren ordezkariak. Eta EEE-ko bederatzir nazioetako Gotzai Batzarren Batzorde bat fundatzea erabaki dute.


Helburua, EEE-aren ekintzari darizkiokeen prolema etiko, sozial eta erlijiosoak aztertzea izanen du delako Batzorde horrek.

Badiudi, beraz, gotzaiek errealtatearen arabera joan nahi dutela Kristoren ebanjelioa zabaltzeko egin-kizuna betetzerakoan. Halaxe izan bait da lehen ere Elizaren historian: desertuan ez, baina gizonak bere bizitza bizi izan duen jokalekuan predikatu ebanjelioa, legamia nahastu.

BELGIKAKO GOTZAIK BIR-ADISKIDE-KUNTZAREN AURREAN

1975eko Urte Saindurako slogan bezala, bir-adiskidekuntza eman du Paulo Vlak.

Ez da programa makala Aita Sainduak horrela ezarri diguna. Bir-adiskidekuntza alegia. Euskaldunon bir-adiskidekuntza pentsatzen dut. Halako banaketa, halako istilu, halako... Zertan bir-adiskidetu ikusten dut. Kaso bat aipatzeko, euskal aldizkariaren bir-adiskidekuntza aipatuko nuke. Ikusten ez dudana, horretarako bidea da. Agian, komeni ere ez da: biderik aski egin ez dugulako oraino sintesia jator bat egiteko. Zeren, sintesia jatorrik ez bait da egiterik bir-adiskidetu beharrekoak kondizio berdintsuetan aurkitu ezen. Eta aipaturiko kasoan, kultura mota biak ez bide dira kondizio berdintsuetan, bata oso zaharra delarik eta beste oso gaztea. Gaztearen sustraia arinak direlarik oraino, eta zaharrenek sakonagoak.



Euskaldunon programa, halatan, halako garai bateko sintesiaren atzetik eta bila ibiltzea litzateke. Eta ez dut uste bestela ikusten dutenik ere Belgikako gotzaiek mundu osoaren eta, bereziki, belgikatarren programa.

Belaxkakeriak bazterrerara utziaz mintzatu bait dira, izan ere.

Guztien gain bakearen alde izateak —diote—, «jauntxokeriak egoeren aurrean etsipen pasiboa» hartzea bultzatzen du. Eta horrelako bakezaleen jokabideak «ito egiten du —jarraitzen dute— sarritan argiagotzen diren kreatibitateak». Baina, esan behar da, egoera asko injustiziak dela. «Zenbaitek bere interes pertsonalak defendatzen ditu, edo bere taldearenak... Jarra borrokakoiagoa da sarritan berrikuntzarako eta zuzentasunerako kondizioa».

TXINATAR TANKERAN EZKONTZEA

Orain egun gutxi, txinatar emazteki bat ezkontzera zihola eta, diru biltza bat antolatu zuten bere lagunek. Zenbait langile, orduan, diru biltza hori egitea komeni den ala ez eztabaidatzen biltzen dira.

Eta ezet erabaki. Ezteietan egiten diren gastuak ohitura zahar eta txar batetik datozela: txinatar po-break ezkontza taxuz egitekotan kapitalistei diru aurerratua eskatu eta lur-jorik gelditzen ziren garaiko ohitura.

Halatan, ezteiegunerako «jan-soiltasun, lan gogor eta bizitza ximplearen tradizioa» egiteko erabakia hartzen du talde batek Txina berrian.

Eta ohitura zaharren gose-egarri lirakekeen guraso eta aiton-amonei, hitzaldiak emango zaizkiela, beren postura horrekin zapaltzaileen lagun egiten direla agertuz.

Euskal Herrian ezkontzeko daudenei mesede ederrik egingen liekete ezteie garairako bide berri hau sartzeko gauza liratekeenik!!!

AMUNSA

FAGOR

edaria
epela dagola?
FAGOR 'ek
oztuko
du bereala



YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA



MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGIA
Del honi jarraituz bazatoz
zure erlojua KANARIAS bitan
baiño merkeago erosiko duzu

Mitxel Arzu, 1

ONDARRABI

JOSTUNDEGIA

MODISTEGIA



Urbietia, 66

DONOSTIA

J. M. Mujikaren Itzaldiak
(Aspirillak 1 - 6)

Gaztea, aizarnarra, apaiza. Alemanian ari da teologi ikastaldiak egiten. Azken bolada onetan, J. Arregirekin batera egindako bere lan-txoak irakurtzeko aukera izan dugu Z. ARGIAko irakurleok. Beraz ezaguna dugu gure artean.

Bere espezializazioa teologi maila da. Bainan teologia ori egungo kulturaren giroan egin nahi luke. Izan ere, teologi sailean ari denak nahi ta nahi ez jakin behar du kultura indarrek zer nola eragiten dioten fedezko bizitzari, alakoak gauza zuzenik eta serioerik egin nahi badu behintzat.

«Instituto de Teología y Pastoral» delako Etxean egin dira itzaldi auk. Itzaldien asmoa zera zen: Gaur Euskal Erriak duen erlijio arazoa ez da bapatean sortutako fruitua. Zuztarrak gure lurpean ditu, edo obeto, gure istoriaren pean. Gure istoria konkretoko baldintzatutako gizartea gara. Ezin izango dugu konprenitu gure gaurko egoera lehen-goari begiratu eta aztertu gabe. Gure Elizak badu bere istoria. Beharrezkoa zen azterketa bat egitea, zer nolako istoria politiko-erlijiosoaren ondorenak garen gu jakin dezagun.

Euskaldun eta fededun jarraitu nahi dugunontzat au egin beharrezkoa zen. Sei egunetan segidan eman dituan itzaldien kakoa au izan da: Fedea eta errigintza (batez ere gure errigintza).

Azken amabost urtetan gertatuari begirada otz bat botatzen badiogu kezka eta larritasuna sortzeko gai dela pentsatzen dut: Elizaren indarrak desmantelatu arkitzen dira. Zer gertatuta da, zein pentsa-moldek eta zein praxisak eragin diote ainbeste kristauri bide desberdina artzeko momentuan? Galdera zorrotzak. Behar bada lojika gabe erantzunak.

Bestalde, ez da gaur goizeko arriskua teologiak duen arrisku «domestikoa»: baselina bihurtzean. Ez itz serioerik, ez estruktura istorikorik; itz politik esan, nunnahiko eta noiznahirako balio duten itzak erabili teologia dela esanaz. Joera au litzateke fede reflexioa osoki alienatzea.

Fede reflexioa dela esan eta gure ametsen osagarri ttontoa izatea.

KRIKITA ERE EGIN DEZAGUN

Itzaldien programa Z. Argian agertu zen. Sei egunez jardun da gure aizarnar gaztea jota ke, auskera errezean, egungo kristau reflexioak dituen oztopo eta egokieraz erlijioa eta errigintza neurri egoki eta jatorrean elkar uztartu nahiaz.

Lehen eguneko eta azken eguneko itzaldiak, batez ere gure Euskal Erriari begiratuaz egin zituan. Karlstadatik asi eta 1936ko gerra ondoko urteak aztertuz; 1960-70 eko amar urteak, bereziki, ikusi genituen. Beste iru itzaldiak, Euskal Erria europear horizontean zer nola ikusten dan izan ziran.

Gure irakaslea Alemanian ikastaroak egiten ari denez, egungo neo-marxisten eta, batez ere, Frankfurtoko Eskolako berri ederrik eman zigun.

IZLARIA

Mujika gaztea izlari trebe eta pizkorra datorkigu. Bazirudien itza euskeraz erderaz baiño errazago zetorkiola. Ez pentsa gero neo-marxisten izkuntza borobil ori ain erreza denik. Ori zen itz jarioa pentsamendu zaillak adierazterakoan!

Gure irakasleak ondo erakutsi zigun Fedea eta errigintzaren artean ikusten zituen ezin-konponketak. Eta, azkenik, sintesi bat egiterakoan kristau izaten jarraitu nahi bagara, zer gauza irlaken ezin utzizkoak esaten saiatu zen. Bejondeizula!

Barkatu bezait nere lagun den Mujikak, baiña kritika egiten ari naizenez dena esan behar dut. Alako «kritizismo pesimista» nabaitzen nuen gure izlariaren itzetan. Kritikari presuestorik ez jartzeko eskatuko nioke. Edo obeto, edozein kritika ebanjelioaren «presuestotik».

Sintesiak azkar egiteak eta sintesiak borobillak direnean ni bildurtu egiten naiz. Errealidadea eta istoria ez dira borobillak. «Pero para los hechos» ezingo dugu behintzat esan.

GAIA

Gehiegizkoa zen bost egunen barruan botatzeko. Ez da giza-semerik gai ori dena, itzegiterakoan esan nahia traizionatu gabe, emango lukeenik.

Guztion arriskua ikusten dut or nik: sintesi aundia egin eta gero denbora gutxi dagoela eta, nahi duguna esan. Nahi eta ez, ezin «objektiboa» izan gaia ain zabala izanik.

Itzaldien asmoa Gure fedea eta gure Herrigintza aztertzeko zen. Intentoan gelditu dela esan behar. Ez dago gure reflexio teologikorik edo eta erlijioso historikorik «profano» mailan gehiago ez dakigun une onetan.

Azkenik bazen garaia gure aldean ere, teologia egiterakoan «pro domo» egiteari uzteko. Gure teologilariak, gehienetan, etxe barrukoentzat bakarrik mintzatzen dira. Teologiak, gure artean ere, «in partes infidelium» irten beharra du.

ELKARRIZKETAK

Mujika onek Rodriguez izena izan balu eta... erderaz eman, ziur nago jende gehiago joango zatekeela. Ogeita bost ogeita amar lagun biltzen giñen. Elkarrizketak goi mailara jotzen zuten, lañotan ibiltzeko arriskuarekin, edo eta zer esan ez genekiela gelditzen giñen.

Azken egunez elkarrizketa pizkatxo bat zentratu zen: Guri gaur Euskal Errian fedeak zer?

Mailla ori zen interesgarriena.

BUKATZEKO


Zerbait egin da. Pauso bat aurrera. Gure Euskal Errian pentsamendu autonomorik ez dugu, edo eta ditugunak ez dira batere zientifiko. Au orrela izanik, ez da posible fede-reflexio euskaldunik.

Ori aitortu beharra daukagu. Gehientsuena egiteko dago. Fedek, kristau denenarekin batera, gurea ere izan behar badu, reflexio mailan eta ekintza mailan ere gurea izan behar du. Bien bitartean inportazio produktuekin bakarrik biziko gara.

JUAN JOSE GOENAGA

LENIZKO “ALMEN”

BAILARAKO HAUR GUZ- TIAK EUSKALDUNTZEKO ASMOA



Ikastetxe zaharra eta berria,
“Kurutzeberri”pean.

Irakaskintza herriaren eskuetan jartzeko ametsa

Aspaldian ez ginen Lenizko errepublikan izan. Izan ere hain urruti dago Donostiatik! Halere Martxoko eguzkia borondatetsua zen eta eguraldi zoragarri egin genuen joan-etorria.

Josu Otaduiaren zuzenbideak genituen patrikan. Bide galtzerik gabe aurkitu genuen. Zai zegoen. Betaz ginela eta Arrasateko zenbait lantegi eta Lan Kideen Aurrezkiak eraiki berria duen etxea era-kutsi zizkigun.

Indarrean dago Arrasate aldea. Burua, lana, dirua... Badira, noski, hutsuneak eta akatsak. Baina bizi den bailara dugu Arrasate aldea. Haurtzaindegia, Oinarrizko Heziera Orokorra, batxillerra, COU, Profesio-eskola, magisteritza... Urtean 30 milloi ematen dituzte irakaskintzarako kooperatibek.

Tarteka, bat ere grazia-rik egiten ez zion honako hau esaten nion adarra jotzeko Josuri: “jakina Euskal Herriko diru guztiak honera ekartzen dituzue eta”.

Pasa genuen Aretxabaleta ere alderik alde. Berehalaxe ginen ALMENek duen “Dorleta” izeneko ikastetxean. Ez zegoen bertako zuzendaririk. Aretxabaletako bi gizon aurkitu genituen: Joxe Mari Sarasua eta Joxe Luis Izagirre.

Muno baten gainean kokaturik dago “Dorleta” ikastetxea. Nahiko gelaz eta jolaslekuz hornitua dago ikastetxe hau.

—Nola eta zer asmok eraginik sortua duzue ALMEN?

—Euskal kutsuko eta egiturako izena gertatzen da ALMEN, baina berez lau hitz hauen bilduma duzu: «Asociación Leniz Mancomunidad de Enseñanza». 1965garrenean sortu zen elkartea hau. Bailarako irakaskintza arazoa zuzendu nahirik hain zuzen ere. Batez ere batxiller mailako irakaskintza herriratu nahirik sortu zen. Bost herri gaude elkarturik: Aramaiona, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriaza eta Gatzaga.

—Nola egin zarete guzti honen jabe?

—172 mila metro kuadroko lekua duzu hau. Hor behean Marianistak bizi ziren bañuetxe izan zen etxean. Gaur ikusten duzunez ez dago etxe

horren aztarrenik ere. Hemen go-renean egin dugu ikastetxe berria. Saltzera atera zuten marianistek frailegaiak Logroñora eraman zituztenean. Orduan Lan Kideen Aurrezkiak dirua aurreratu zuen erosi ge-nezan. Baina frailetegia hasi gi-nen aurreneko ikastaroa ematen. Haseran batxiller mailako irakaskin-tzari-ekin genion. Baina orain batxillerra ezezik Oinarrizko Heziera Orokorra osoa ere harturik dau-kagu.

—Bailarako Amabirjinaren, “Dorleta”, izenaz bataiaturik daukazue ikastetxe hau. Bai al du ALMENek bere babesean beste eskolarik?

—Badaude ikastetxe gehiago ere bailaran. Baditugu harremanak batzuekin eta besteekin. Gure asmoa irakaskintza osoa bere babesean hartuko lukeen elkartea bat sortzea

litzateke. Horretarako, ordea, ikas-tetxe bakoitza gurasoen esku ego-tea da beharrezko eta zuk ondo dakizunez zenbait erlijiosok eskutik nahi izaten ditu irakaskintzaren gil-tzak. Baina baditugu harremanak. Elkartu ere egingo garela uste du-gu egunen batez.

—Helburu hau ikusi dut AL-MENeko araudian: “Irakaskintza eta heziera arazoak sakon ikusi eta aurrera eraman Bailarako behar-rak eskaintzen duten maila eta neurrian”. Aintzakotzar hartua al daukazue euskal kultura?

—Lehenengo egunetik hasi zen ALMEN euskara irakasten, Bailara-ko ikastolekin harremanak edukitzen eta ikastoletako irakasleei mahai ingurura deitzen. Hemen egiten du-te Aretxabaletako ikastolakoek Oi-narri Heziera Orokorreko ikasketa

guztia. Bi gela daude maila bakoit-zean, bata euskaraz eta bestea er-daraz. Oinarrizko ikastaroaren hiru-garren mailaraino ematen da eus-kara. Baina urte guztietan eman nahi litzateke. Baita erdarazko ge-letan ere.

—Etiket euskara hartzen ez du-ten haurrek ikasten al dute hitze-giteko edo aditzeko adina euskara?

—Zail da erdarazko geletan dau-denek, euskarazko saio batzun bi-dez, euskara hitzegiteko eran ikas-tea. Baina euskal giroan sartzen di-ra zertxobait eta zenbait gauza uler-tzeko gai egiten. Guk, ordea, jai-o ordurako euskara ikasteko egokie-ra ipini nahi genieke har guztiei haurtzaindegia-ren bitartez. Guk, haur guztiak erdara eta euskara ikastea nahi genuke. Ez genuke bi hizkuntzak ikasi gabe inor geldi-tzerik nahi. Ez du ezeren galerarik, umeen heziera, bi hizkuntzak on-do ikasteak. Aurten, Aretxabaletan experientzi berri bat hasi dugu er-daldunen umeekin. Ikastolako gela oso bat ireki dugu erdaldunen hau-rrekin. Euskararen jabe egingo di-rela uste dugu lau urte betetzen dituztenarako. Guztira hogeita sei haurrek ekin diote bide berri horri.

—Beste ezer egiten duzue hau-rrer heziera?

—Larunbat goiza osorik hartzen dugu irakaskintzaz aparte beste gai batzuk sartzeko. 20 eratako lan-sailak daduzka: sukaldaritza, kirol taldea, artegintza, argazkigintza... «Bertsolari Eskola» ere badaukagu. Lehen agurtu dituzun bi gizon hoiek umei bertso sena esnatzeko jar-dunak egitera etortzen dira larun-batero. Laster egingo dute jaialdi bat Almeneko bertxolaritxo eta abeslari-entzuek. Honelaxe etorri ohi da zenbait irakasle edo borondate oneko edozein herritar zerbait ira-kastera larunbateetan.

—Ikusten dudanez lan asko egi-ten duzue haurren heziera. Baina ez da aski. Landu behar dira ira-kasleak eta gurasoak ere. Zer egi-ten duzue horretaz?

—Egia diozu. Hezitzaileak oso go-goan hartu behar dira. Lehenik euskaraz ez dakiten irakasle guztiei ordu betekoa jarduna ematen zaie euskaraz egunero. Euskal giroaren jabe egin behar dute irakasle eta guraso guztiek. Baina hori bakar-ra ez da aski. Baditugu bilerak ira-kasleekin. Behar beharrezkoak dira irakasleekiko harreman hauek. Gu-rasoei ere jabetu behar dute hau-rrer heziera duten zerikusiaz. 500 guraso bildu ginen lehengo batean. «Gurasoen eskola» ere sorturik da-dukagu. 45 senar-emazte biltzen ga-ra. Aurrena denok batera gai bat aztertzen dugu. Gero taldeka. Hi-lero hasi gara biltzen. Herriaren, gizartearen, gurasoen esku egon behar du irakaskintzak eta hezie-rak.

—Nola eraturik dadukazue bost herriko ALMEN?

—40 irakasle daude guztira AL-MENen. Gehienak emakumezkoak dira. Zuzendaritza marianistek da-ramate. Guztira 9 dira. Baina hauek ere beste edozein irakasle bezala soldatapean daude. Eskubide osoa ALMENen batzordeak du. Alderdi ona du ikastetxean biziko den tal-de bat edukitzeak. Beti dago nor-bait etxeari eta zerbaitetara dato-rrer edonorri begiratzeko. Gainon-tzean ALMEN 2.300 bazkide dituen elkartea bat duzu. Guraso eta ira-kasleak, herritarrak, herriko elkar-teak, enpresak eta kooperatibak daude sarturik elkartea honetan. 15 milloi behar dira urtero hemengo haurrak eskolatze. Bazkide hoiek osatzen dute horretarako behar den diru kopurua.

—Zenbat ikasle dabilta gaur-gun ALMENen?


—Oinarrizko Heziera Orokorrean 877 dabilta 25 gelatan banaturik. Oraindik ez dugu zortzigarren ge-larik. Batxiller ikasten, berriz (lau-garren urtetik aurrerakoak bakarrik dira) 128 ikasle dabilta. COU 108 neska mutil ari dira egiten. COU-koek hemen ematen dizkiete denak dagozkien gaiak, baina bakoitzaren baitan eta aukeran jartzen direnak batzuk «profesio eskolan», besteak «San Viator» en eta gainontzekoek «La Merced» izenekoan ematen di-tuzte.

—Zenbat ordaintzen du ikasle bakoitzak ALMENen?

—Urrutikoei eta bertakoei berdin kentzen zaie, hots, autobusean da-tenari eta ez dabilenari. Hilean 275 pezeta ordaintzen du bakoit-zak. 15 milloko koskatik 4 milloi bakarrik ordaintzen dituzte irakas-leek. Aurten sei milloi eman di-gu Estaduak. 4 milloi kooperati-bek luzatzen dituzte. Enpresak 300 mila pezeta eta bazkideek 700 mila pezeta. Honela berdintzen dugu ur-tean zehar egiten dugun koska.

—oOo—

Luzea eta sakona izan da elkar-rrizketa. Benetan bizi dute Otadui, Sarasua eta Izagirrek irakaskintza arazoa. Ez dugu alderdi gehiago aipatzeko lekurik. Herria-ren, gizartearen eta gurasoen eskua dagoen heziera eta irakaskintza hori tu nahi dituzte. Badu zer esanai eta zer irakatsirik Lenizko errepublikatxoak. Beste bat arte.



Ikastetxe berria